

BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA  
**HERRITARRAK BATZORDEAREN 2. BILERA**

Bertaratutakoak:

- Ekaitz Aranberri (Euskara, Gazteria, Komunikazioa eta Partaidetza arloko zinegotzia)
- Mainer Osa (Kultura teknikaria)
- Estepan Plazaola (Euskara zerbitzuko burua)
- Iñaki Ugarteburu (Kirol teknikaria)
- Nagore Narbaiza (Hezkuntza eta partehartze teknikaria)
- Leire Garmendia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)
- Edurne Simón (Izadi 21 aholkularitza-taldea)

Bileraren hasiera-ordua: 10:15.

Udalak kontratatutako aholkularitza-enpresako kideek, akta honekin batera doan aurkezpenaz baliatuz, eta “Bergara 2030 egin herrixa” prozesuaren baitan mahai teknikoaren lehen bileran heritarren arloei (hezkuntza, kultura, kirola, euskara, komunikazioa, sentsibilizazioa, partaidetza eta gobernantza) dagokionean 2030 urtera begira identifikatu ziren erronka nagusien hausnarketatik abiatuz, Plan Estrategiko Jasangarriaren formulazio estrategikoa aurkeztu dute.

Lehenik, apirilean izandako lehen herri-batzarrean herritarrekin eginiko lanketatik aholkularitza-enpresako kideek idatzi duten 2030erako ikuspegia azaldu da. Herritarrei 2030 urtean Bergarako izango dituen ezaugarri nagusiak zehazteko eskatu zitzaizkien eta gehien nabarmendu zituzten hitzekin osatu da 2030erako ikuspegia:

**“Bergara inklusiboa izango da 2030ean, adin, jatorri eta egoera ezberdinean aurkitzen diren herritarrei enpatiaz erantzutzea diena. Ekonomia eredu jasangarriaren bidean, herritar orori lan duina eskaintzen dion eta aldi berean natura zaintzen duen komunitatea izango gara, osasuna lehentasun izanik herri goxo batean bihurtu dena. Gizarte euskalduna izango da gurea, kultura-, kirola- eta hezkuntza- eskaintza zabala dituen. Ikuspegi parte-hartzaile eta feministatik erronka berriei aurre egiten dien auzo-herria izango gara.”**

Ondoren, formulazio estrategikoa definitzen hasteko asmoz, mahai teknikoaren lehen bileran eginiko lanketatik jasotako helburu estrategiko eta helburu operatiboen (jarduera-programen) proposamena aurkeztu da.

Pauso hori eman ostean, Herritarrak batzordearen 2. saioko helburu nagusiak aipatu dira:

- 1) Aurkeztutako helburu estrategiko eta operatiboen gainean ekarpenak jasotzea.
- 2) Helburuetatik ekintzetara jaistea, helburu bakoitza aurrera eramateko ekintzen hasierako zerrenda osatzeko. Ondorengoak ekintza moduan jasotzea proposatu da: indarrean dauden udaleko gaikako ekintza-planak (euskararen plan estrategikoa 2018-2022, Bergarako egoera sozioekonomikoaren ikerketan barneratzen diren lan ildoak,

jarduera-ardatzak eta ekintza posibleak), Legegintzaldiko planeko ekintza esanguratsuak eta diagnostikoaren lehenetako jarduerak.

3) Hurrengo bileren inguruko aurreikuspenak azaltzea

Lehen bi helburuak erdiesteko asmoz, azaldu den helburu estrategikoen gainean ekarpenak egiteko dinamika zehatz bat erabili da eta honakoak dira lortutako emaitzak:

**HELBURU ESTRATEGIKOA: GIZARTE EUSKALDUNA BERMATZEA ETA KULTURA-, KIROLA- ETA HEZKUNTZA- ESKAINTZA ZABALA ETA ERAGILEEN ARTEKO ELKARLANEAN OINARRITUTAKOA MANTENTZEA**

Helburu estrategikoari “[sorkuntzaren sustapena](#)” gehitzea adostu da.

Bestalde, proposatuko diren helburu estrategiko guztietan, orohar, [banakako herritarra ardatza](#) dela jaso beharko litzatekeela adostu da.

**JARDUERA-PROGRAMAK (HELBURU OPERATIBOAK):**

Helburu honek jasotzen dituen lehenengo [hiru helburuak](#) Euskararen arloarekin lotura izanik, guztiak jarduera programa berean [bateratzea](#) adostu da eta guztiak batzen dituen izenburua proposatuko da. Bestalde, jarduera programa berri baten beharra somatu da, eta hau gehitzea adostu da: “[Herri integratzaile eta inklusiboa eratzea](#)”. Jarduera programa edo helburu bakoitzerako jaso diren ekintza posibleak hauek dira:

- **Eremu eta gune ezberdinetan euskararen erabilera indartzea eta suspertzea.**
- **Herriko eragile eta entitateen arteko harremana euskalduntzea (administrazio-entresa, administrazio-herritar, entresa-herritar, ...)**
- **Euskara tresna integratzaile eta inklusibo gisa erabiltzeko baliabideak diseinatzea**
  - Herritarren arteko harremana sustatzea, ez soilik euskalduntzea. Elkarren arteko harremanak euskaraz izateko herriko entitateen arteko akordio, hitzarmen handi bat osatzea.
  - Euskararen “arnasgune funtzionalak” (euskara ohiko hizkuntza izango den guneak) sortu udalerriko eragileekin eta udalerriz gairako entitateekin elkarlanean bideratutako egitasmoen bidez: entresa mundua, merkataritza, kirola, etab.
  - Arnasgune gairako indartu, zaindu eta zabaltzea
  - Migratzaile gazteei (haur, gazte, familia) begirako programa integrala: euskara bizipen positiboekin lotu dezaten lortzeko.
  - Euskara ikastea doako bihurtu.
  - Digitalizatorako bidean euskararen gaia aintzat hartu atzera ez egiteko.

▪ **Herri integratzaile eta inklusiboa garatzea**

- Hezkuntzako sare ezberdinak gaindituko dituzten espazioak sortu.
- Segregazioari aurre egiteko plana garatu.
- Bergaran dauden nazionalitate ezberdinetako herritarrak/elkarteak erakutsiko duten jaia antolatu plazan (“kultur aniztasunaren jaia”). Bakoitzak bere jatorriko herrialdeko jakiak, musika, hizkuntza,... ezagutzera emateko.
- Aniztasun/Kulturartekotasun teknikari postua atera.
- Udalaren eta migrante kolektiboen arteko harremanak sendotu foro eta ekintza ezberdinen bitartez. Memoria inklusiboagoa sortu, harreman iraunkorrak ahalbidetu.
- Kultur aniztasunaren lanketa egin eta espazioak ireki, herritartasuna eta kultur ezberdinen asimiliazioa landuz.
- Harrera plan integrala sortu.
- Kirol praktika “denon eskura” jartzeko, etengabeko aukera berriak planteatu.
- Atzerriko kirol praktikak sustatzeko eta ezagutzeko ekimenak sustatu.
- Oinezkoen begira diseinatutako herria sustatzea.
- Bergara herri hezitzailea izatea.

▪ **Azpiegitura eta baliabideak hobetzea eta sendotzea**

- Udaletik elkarteei behar dituzten espazioak eta baliabideak erraztu eta laguntza eskaini.
- Espazio fisiko handi bat atondu elkarten egoitzak ezarri eta euren arteko interakzioa bultzatzeko (Oñatiko “Eltzia”ren gisakoa).
- Arrizuriaga kultura elkarteentzako gune bihurtzea, kultura elkarten arteko sinergiak erabiliz kultura sorkuntza bultzatzeko. Udaleko kultura zerbitzuak ere Arrizuriagara bideratzea.
- Arrizuriaga eraikinaren kanpokaldeko parkeko eremuari izaera edo kutsu kulturala ematea: maiztasun finko batekin bertako taldeen kontzertuak eskainiz, tailerrak antolatuz, etab.
- Arrizuriagan gela 1 antolatu talde bakoitzaren sorkuntza lana sustatzeko: Teklatu/pianoa, bateria, grabazio mahaia, bideo kamerak, etab.
- Gaur egun elkarteek erabiltzen dituzten lokaletan dauden inbertsio eta mantenu beharrei lehenbait lehen erantzun bat eman.
- Kirol instalazioak egokitzeko “inbertsioen” plangintza egin.
- Kiroletako plan estrategikoa (2022-2025) garatu.

- Auzoetan kirol praktika errazteko eta sustatzeko hausnarketa eta plana garatu.
  - Labegaraieta ingurua Bergarako arnas gune osasuntsu bihurtzea.
- **Eragile ezberdinen arteko hartu-emana eta elkarlana bultzatzea (ikastetxeen arteko erlazioa, herriko elkarteen arteko erlazioa, etab. landu, elkarrekiko komunikazioa hobetu eta elkarlanean aritu, proiektuak amankomunean jarri eta sinbiosian lan egiteko).**
- Elkartegintza zaindu eta babestea
  - Elkarlana egitasmoetan gauzatzea. Eragile askoren partaidetza eskatzen duten ekintzak diseinatu eta antolatu.



**HELBURU ESTRATEGIKOA: HERRIGINTZA ETA GOBERNANTZA UZTARTUZ, BERGARA INKLUSIBOA BILAKATZEA**

**JARDUERA-PROGRAMAK (HELBURU OPERATIBOAK):**

Hirugarren jarduera programa proposatu da: [Gobernantza eredu berri baterako lan egiteko](#) helburua jasoko duena.

- **Gobernantza eta partaidetza eredu berri baterako lan egitea**
  - Sorkuntza eta herritartasuna sustatzeko espazio ireki/irisgarriak sortu. Kudeaketa eredu ezberdinak aztertu (Gobernantza ereduak)

- Udalean inbertitzea (baliabideak/pertsonala) herrian inbertitzea da. Beharrezkoa da Udalari behar dituen baliabideak eskaintzea konplexurik gabe.
  - Kogobernantzan sakontzeko proiektuak garatu, erantzukizun partekatuarekin. Erantzukidetasuna sustatuko duten espazio/zerbitzu eta baliabideak sortu.
  - Mahai sektorialak sortu beharrea (kontseiluak) partaidetzarako organo egonkor bakarra aztertu, herritarren ordezkaritza izango lukeena. Epe luzekoak eta iraunkorrak diren kontseilu arlo bakarrekoez benetan funtzionatzen ote duten zalantza jartzen da. Herritarren partehartzea bultzatzeko foroak eraldatu beharko liriateke, arloka edo gaika izan beharrea proiektu/helburuka antolatuz. Herritarrek modu honetan udal jarduna ebaluatuko lukete.
- **Herritarren eta udalaren arteko komunikazio eta harremanak aldebikoak izateko lanketa burutzea**
- Herritarrei teknologia berriek eskaintzen dituzten kanalak eskura jartzea Udalarekiko harremana errazteko (whatsapp, etab.). Harremanen digitalizazioan sakontzea, teknologia berriei atea irekiz.
  - Digitalizazio bidean kanal presentzialak (aurrez aurrekoak) ez ahaztea eta zaintzea. Euskararen erabilera ere aintzat hartzea.
  - Herriz kanpo bizi diren bergararrak presente izatea euren potentzialitatea baliatzeko eta herritarrekiko lotura sendotzeko.
  - Harrera protokoloa landu, aberastu eta hobetzea.
- **Begarako garapen-eredu jasangarriaren aldeko komunikazio-, sentsibilizazio-, trebakuntza- eta partaidetza-egitasmoak garatzea.**
- Eskola Agenda 2030eko ekintza batzuk plan estrategikoan txertatzea.



Aholkularitza teknikoko kideek aipatu dute proposatzen diren ekintzek behin betiko planaren egiturari izango duten kokapena ezingo dela oraindik guztiz zehaztu.

Dinamikarekin amaitu ostean, mahai teknikoaren hurrengo bileraren helburuak eta tartean antolatuko diren herritarren mahai sektorialetan landuko dena azaldu dute aholkulariek.

Bestalde, gaurko bilerara etortzeko aukerarik izan ez duten eragileei eta baita gaurko saiora bertaratu direnei ere, ekarpenak egiteko aste beteko epea ematea adostu da.

Honenbestez, bilera 12:00etan amaitu da.